

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6301

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 13koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2012an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdia arautzen duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra– Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen eremu guztietan. Ildo horretan, Emakunde da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan emakume eta gizonen berdintasun-politika bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzen duen erakundea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duena betez.

Berdintasunaren aldeko politikak garatuko baditugu, aztertu beharra daukagu batetik, zer genero-harreman eta –rol dauden egun emakumeen eta gizonen artean eremu guztietan dauden ezberdintasunen oinarrian, eta bestetik, abian jartzen diren ekimenek nola eragiten duten edo nola eragin dezaketen. Azterlan horiek zabaltzea nahitaezkoa da eztabaida publikorako eta erabaki politikoak hartzeko, are gehiago genero-ikuspegia politika guztietan txertatu nahi badugu.

Hortaz, profesionalak eta gizarte-eragileek egindako ikerlanak argitaratzen eta zabaltzen laguntzeko eta sustatzeko da ebazpen hau, zeinaren bidez arautzen baitira aipatutako xederako diru-laguntzak. Azaldutako helburu guztiak aintzat hartuta, diru-laguntzetarako deialdi hau arautuko dugu, publizitate–, lehia– eta objektibotasun-irizpideen arabera.

Deialdi honetan, aurreko urteetan hasitako bideari jarraituz, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen laguntzen duten ikerlanak argitaratzeko diru-laguntzen ildoari eutsi zaio, bai eta aurreko deialdiaren edukiari ere. Soilik ordainketa-sistema aldatu da: ordainketa bakarra egingo da, argitalpena amaitu ondoren eta argitalpenak sortutako gastu guztiak justifikatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.11 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prozedurari dagokionez, berrikuntza hau dugu ekitaldi honetan: izapide telematikoak egiteko aukera dago; prozedurako izapideak bide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin ditzakete hala nahi dutenek, alor honetan aplikatzekoa den araudiaren arabera. Horretarako, izapide modu horrek eskatzen dituen egokitzapenak sartu dira ebazpenaren testuan. Horren haritik, honako hauek dira aplikatzekoak: abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeko dena.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean jasotako izapideak arindu egin dira deialdi honetan: organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatu dezake eskatzailearen nortasuna (hirugarren interesdunarena) eta diru-laguntza emateko eta ordaintzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-

laguntza emateko bete behar diren beste alderdi batzuk betetzeari buruzko ziurtapena, interesdunen erantzukizunpeko adierazpenen bidez.

Azkenik, deialdi honi gastu-espedienteen alde aurreko izapideak egingo zaizkio, EAEko 2012ko Aurrekontu Orokorren kontura.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen duten ikerlanak argitaratzeko diru-laguntzak arautzea eta horren deialdia egitea. Ikerlanak 2012. urtean argitaratu behar dira.

2. artikulua.– Helburuak.

Ikerlanak argitaratzeko proiektuek helburu hauek lortzen lagundu behar dute:

a) Hobeto ezagutzea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta haien arteko ezberdintasunak, baita bizitzaren arloetan genero-harremanak zer-nolakoak diren eta ezberdintasunak zerk eragiten dituen ere.

b) Berdintasun-politiketarako jardunbide egoki izan daitezkeen ikerketen emaitzak ezagutaraztea.

3. artikulua.– Hautaketa eta diru-hornidura.

1.– Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Ondorio hauetarako, lehiaketa izango da diru-laguntzak emateko prozedura, non aurkezten diren eskaerak alderatzen diren, 11. artikuluan finkatutako esleipen-irizpideei jarraituz eskaera horien arteko lehentasuna finkatzeko, eta diru-laguntza irizpide horien arabera baloraziorik onena lortu duten eskaerei soilik emateko.

2.– Erakundearen Aurrekontuetan ondorio horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako da aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-hornidura. Zenbatekoa, hasieran behintzat, hogeita mila (20.000) eurokoa izango da 2012ko ekitaldirako.

2012ko laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan ezarritakoa betez (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Agindua).

4. artikulua.– Eskatzaileak.

1.– Pertsona fisikoek eta juridikoek, pribatuek nahiz publikoek, eska ditzakete laguntzak. Administrazio publikoek eta horien erakunde autonomoek ez dute laguntzarik eskatzerik izango; bai, ordea, Euskal Herriko Unibertsitateak. Baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Argitaratu beharreko ikerlana Euskal Autonomia Erkidegoan egitea.

b) Lehen argitaraldiak izatea.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta edukitzea.

d) Argitaratu beharreko ikerlanak hizkera ez sexistaz idatzita egotea.

2.– Pertsona edo erakunde eskatzaileak ezaugarri bereko diru-laguntzak edo laguntzak direla-eta, itzulketak edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badaude eta laguntzak esleitzen bazaizkie, itzulketak edo zehapen-prozedura amaitu egin beharko da diru-laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko. Halaber, egiaztatu beharko dute ez direla administrazio-zehapenik edo zehapen penalik betetzen ari sexu-bereizkeria egiteagatik, eta ez daudela debeku horrekin zehaturik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera; ez dutela diru-laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarren beste administrazio-zehapen edo zehapen penalik, eta ez dutela diru-laguntza publikoak eskatzeko legezko debekurik.

3.– Baldin eta hainbat eskatzailek ikerlana argitaratzeko proiektu berbera aurkezten badute, horien titular-kide direnek euren arteko bat izendatu beharko dute Administrazioaren aurrean ordezkari izan dadin.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten argitalpen-proiektuak lagunduko dira, zehazki, emakumeek eta gizonak bizitzaren arloetan dauzkaten egoera, baldintza eta behar desberdinak aztertzen dituztenak, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko bideak aztertzen dituztenak eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerak eta proiektuek emakumeengan eta gizonengan duten eragin ezberdina ebaluatzen dutenak.

2.– Bereziki, gastu hauek lagunduko dira:

- Testuak zuzendu eta maketatzeko gastuak eta fotomekanika eta inprimaketa gastuak.
- Inprenta– eta banaketa-gastuak.
- Beste gastu batzuk.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta pertsona edo erakunde eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago.

4.– Ikerlanak 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean argitaratu behar dira.

6. artikulua.– Lehentasunezko gaiak.

Ikerlanaren argitalpenaren lehentasunezko gaitzat jotzen dira:

- a) Generoak nola eragiten dion erabakiguneetara iristeari eta erabakiak hartzeari.
- b) Generoaren eragina ebaluatzeko metodologiak garatu eta saiatzea.
- c) Antolamendu sozio-ekonomikoko aldaketak, ekoizpen eta ugalketa eremuetan oreka handiagoa lortzen laguntzen dutenak.
- d) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, ereduaren arabera, guztia beteta eta hurrengo artikuluan adierazitako dokumentazioarekin batera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan (Manuel Iradier, 36, 01005), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Eskabide-eredua Euskadi.net-en egoitza elektronikoa honetan

eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_subvencion/ayudas_publicaciones/es_ayuda/ficha_procedimiento.html.

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri behar dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, eskabidea dagokion bulego publikoan noiz sartzan den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

2.– Halaber, interesdunek bide elektronikoak erabil ditzakete prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko. Eskabideak bide elektronikoz aurkezteko, euskadi.net-en egoitza elektroniko honetan sartu behar da: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_subvencion/ayudas_publicaciones/es_ayuda/ficha_procedimiento.html.

Eskabidea aurkeztearen osteko izapideak bide elektronikoz egiteko helbidea: http://www.euskadi.net/mis_gestiones.

3.– Erabilitako izapideari buruzko zehaztapenak (aurrez aurrekoari nahiz elektronikoari buruzkoak) eskuragarri daude helbide elektroniko honetan: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_subvencion/ayudas_publicaciones/es_ayuda/ficha_procedimiento.html.

4.– Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bideak –aurrez aurrekoa edo elektronikoa– ez dakar prozeduraren hurrengo izapideetan bide hori erabili beharra.

5.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurki ditzakete, nahi duten eran. Interesdunek hautatutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideak aurkezteko epea 2012ko martxoaren 31n amaituko da.

8. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta agiriak.

1.– Pertsona fisikoak edo juridikoak ebazpen honetan agertzen den eskabide-eredua aurkeztu behar du, non eskatzaileak identifikatuko diren.

2.– Eskabidean, erantzukizunpeko adierazpen eta adostasun hauek jaso behar dira:

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ez zaiola debekurik ezarri zehapenak irauten duen aldian ebazpen honetan araututako deialdian parte hartzeko.

– Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzeko pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapenik edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela eskatu edo ez duela jaso –beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik– ebazpen honetan araututako bekaren helburu bera duen diru-laguntza, laguntza, beka diru-sarrera edo baliabiderik, edo, laguntza eskatu duela eta eman egin zaiola.

– Erantzukizunpeko adierazpena, pertsona edo erakunde eskatzailea itzultze– edo zehapen-prozedura batean sartuta dagoen edo ez adierazteko, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Orokorrak eta beren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko pertsona edo erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak –indarreko xedapenek ezarriak– bete dituela, erregelamenduz zehazten den eran.

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adierazteko, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adierazteko.

– Deialdi hau kudeatzen duen organoari emandako elkarreragingarritasun-baimena, hau da: administrazio eskudunak pertsona edo erakunde eskatzailearen nortasuna (hirugarren interesdunarena) eta zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzako betetzea bide elektronikoen bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatze edo frogatzeko baimena, betiere Administrazio Publikoak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko izendatuta dituen ahalmenak eragotzi gabe.

3.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) I. eranskina, behar bezala betea. Argitalpen-proiektuaren datuei buruzko informazioa, eskatutako eta jasotako beste finantzazio-iturri batzuk, zein erakundek eman dituen eta emandako zenbatekoak adierazi behar dira.

b) II. eranskina, ikerlanaren argitalpen-proiektua deskribatzen duen memoria.

c) III. eranskina, aurreikusitako gastu guztien aurrekontua eta horien finantziazioa, aipatu eranskinaren arabera xehekatua.

d) IV. eranskina, jabetza intelektualaren eskubideak lagatzeari buruzkoa.

e) V. eranskina, argitaratuko den testu osoa eta behin betikoa jasotzen duena.

f) VI. eranskina, aurkezten diren dokumentuen zerrendari buruzkoa.

g) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Ez da bete behar, eskatzailea Eusko Jaurlaritzaren Hirugarren Erregistroan alta emanda badago, non eta inprimakian aipatzen diren datuak aldatu ez diren. Ebazpen honen 8.2 artikularen azken atalean aipatzen den baimena ematen denean ere ez da bete behar. Inprimaki hori eskuratzeko: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/autorización/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html.

h) Parte hartzaileak pertsona juridikoak izanez gero, legez eratuta daudela erakusten duten agiriak eta estatutuak.

i) Eskatzailea ordezkatzeko ahalmena duela egiaztatzen duen agiria eta ordezkariaren NANaren fotokopia.

j) Ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagokoak, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzak eginak, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplituta dituela egiaztatzen dutenak, edo, salbuetsirik egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen agiria, ebazpen honen 8.2 artikularen azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

k) Egiaztagiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatzeko.

l) Nortasunaren egiaztagiria, eskatzailearen NANaren edo erakundearen IFZren kopiaren bidez, ebazpen honen 8.2 artikulua azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

4.– Eranskinik izendaturik ez duen dokumentazioa bidaltzeko, jatorrizko dokumentazioa eskaneatuta eta bide elektronikoz izenpetua bidaltzea onartuko da, helbide honetan: http://www.euskadi.net/mis_gestiones.

5.– Aurretiaz aurkeztutako dokumentazioa ez da berriz aurkeztu beharko. Horretarako, noiz aurkeztu zen eta zein prozeduretan aurkeztu zen aipatu beharko da, III. eranskinean horretarako dagoen atalean.

6.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 8. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, ohartarazten zaio eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela, aurretiaz ebazpena eman ondoren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

10. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko kide hauek osatuko dute:

Presidentea: Idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna.

Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.

Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna izango da.

11. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko eta horien zenbatekoa zehazteko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

A) Proiektuaren kalitatea, osotasunean (90 puntu, gehienez).

a) Proposamenaren egokitasuna, deialdiaren eskakizunak kontuan izanda, eta helburuak zenbateraino betetzen dituen (20 puntu, gehienez).

b) Lehentasunezko arloekin bat datorren (20 puntu, gehienez).

- c) Proiektuaren kalitatea (20 puntu, gehienez).
- d) Argitalpen-proiektuaren interesa eta zabalkunde-maila (20 puntu).
- e) Berrikuntzak (10 puntu, gehienez).

B) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz euskaraz egindako ikerlanak argitaratzeko proiektuak (10 puntu, gehienez).

2.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak atzera botako dira.

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du gaitzuko pertsona edo erakundeak diruz lagunduko diren jardueretarako aurkeztutako aurrekontua.

13. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin ematen dituztenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia emango du, zeinaren bidez lehiaketa-prozesua amaituko den eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, bide elektronikoz edo postaz. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Epe horretan pertsona edo erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Ebazpenean, erakunde onuradunen zerrenda jasoko da, diruz lagunduko diren ikerlanen argitalpen-proiektuak eta bakoitzari emandako zenbatekoa jarrita, eta horretaz gain, ordezkari pertsonen edo erakundeen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkariengana jo ahal izateko. Erakunde edo pertsona horiek ordezkariena egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira, diruz lagunduko diren ikerlanen argitaratze-proiektuak adieraziko dira eta, onuradunak uko eginez gero, ordezkariaren laguntzak izan lezakeen gehienezko zenbatekoa ere azalduko da; zenbateko hori sekula ez da izango uko egin duen onuradunari esleitutakoa baino handiagoa.

15. artikulua.– Jabetza intelektualaren eskubideak.

1.– Jabetza intelektualaren eskubideak, ekonomikoki ustiatu daitezkeenak eta diruz lagundutako argitalpenaren ikerlanaren egileei dagozkienak, dohainik lagako zaizkio Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorrari, jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legerian jasotako baldintzen arabera.

2.– Ikerlanaren egileek dagokion agiria eman beharko dute, artikulua honetan aipatzen den jabetza intelektualaren eskubideen lagapena publikoki jasotzeko, hala behar denean. Eskubide horiek erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak dira, eta, orobat, ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak, hain justu ere, mugarik gabe eta egun diren hizkuntza eta prozedura ororen bitartez, jabetza intelektualari buruzko araudiaren arabera xedaezinak diren baldintzen eta mugen arabera.

16. artikulua.– Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzen pertsona edo erakunde onuradunek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte, eta bereziki, honako hauek:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabili behar dute, non eta 18. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez den, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

c) Hala behar bada, jabetza intelektualaren eskubideak lagatzeko agiri publikoa eman behar dute, 15. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

e) Onartutako proiektu edo ekintzaren hasierako baldintzak aldatu edo moldatu behar izanez gero, edo aldi berean beste laguntza nahiz diru-laguntza batzuk jasoz gero, idatziz jakinarazi behar dute, beharrezkoa baita Emakundeko zuzendariak berariaz onartzea.

f) Egindako lanen argitalpen eta publizitate orotan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso dutela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu beharko da publizitate-euskarrian, parte-hartze mailaren arabera dagokion tamainan, kokalekuan eta ikuskeran, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin bat etorritik. Marka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eska daiteke. Erakundearen logotipoa jarri beharko da diruz lagundutako argitalpenean.

g) Diruz lagundutako argitalpenen hiru ale eman beharko zaizkio Erakundeari, eta kopia bat euskarri informatikoan (pdf formatua).

17. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Diru-laguntza emateko, ordainketa bakarra egingo da, argitalpena amaitu ondoren eta argitalpenean sortutako gastu guztiak justifikatu ondoren. Justifikatzeko, 2012ko azaroaren 30a baino lehen (egun hori barne), dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Jasotako funts publikoak nola erabili diren justifikatzeko memoria.
- Diruz lagundutako argitalpenaren balantze ekonomikoa.

– Diruz lagundutako jardueretan egindako gastua egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak, edo fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak; diruz lagundutako jardueri dagokienez, funtsak behar bezala erabili direla edo egindako gastua egiaztatzeko behar diren adina xehetasun eman beharko da. Fakturetako edo agirietako gastuaren data 2012ko abenduaren 31 izango da, gehien jota. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak jatorrizko fakturak edo dokumentuak zigilatuko ditu, eta ondoren, erakunde interesdunari itzuliko dizkio.

– Hartzaileko 3.000 euro baino gehiago eman diren diru-laguntzetan, ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagokoak, Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzak eginak, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplitura dituela egiaztatzen dutenak, edo, salbuetsirik egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen agiria, ebazpen honen 8.2 artikulua azken atalean aipatzen den elkarreragingarritasun-baimena ematen denean salbu.

2.– Dokumentazioa elektronikoz bidaltzeko, jatorrizko dokumentazioa eskaneatuta eta elektronikoki izenpetua bidaltzea onartuko da, helbide honetan: http://www.euskadi.net/mis_gestiones.

3.– Ordaintzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, edozein unetan, jatorrizko dokumentazioa entregatzeko eska dezake, kautotasuna egiaztatzeko.

4.– Diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuari dagokionez, ikerlanaren argitalpen-proiektuaren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada, edo gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio diru-laguntzaren zenbatekoari.

18. artikulua.– Diru-laguntza emateko inguruabarrak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatu badira (betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada) eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk aldi berean laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jasotzen denean, dokumentazioa aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez, emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du (kasu bakoitzaren arabera), eta behar izanez gero, emandako diru-laguntzen zenbatekoak doituko ditu.

19. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

20. artikulua.– Itzulketa prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutako prozedurari jarraituko zaio emandako diru-laguntza itzultzeko. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikulua honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

21. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen dutenen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago eta Erakundeak sustatzen dituen laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, legearen arabera. Eskubide horiez baliatzeko, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren arduradunari, hots, Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arloari: Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 13a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

IKERLANAK ARGITARATZEKO EMAKUNDE DIRULAGUNTZAK

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

1

Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

☛ TITULARRA

Izena / Erakundearen izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * Gizona Emakumea

☛ ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua Gizona Emakumea

JAKINARAZPENA *

2

Elektronikoa Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea * _____

Helbidea * _____

Zk _____ Pisua _____ Letra _____

PK * Udalerria * _____

Lurraldea * _____

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA * Euskera Gaztelania**BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK****Titularraren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea / Probintzia ***

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)
- Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Ez nagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan, itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zigorrak ez daukat, eta ez nago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen nauten lege-debekuen eraginpean, beren beregiko erreferentzia egiten zaielarik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatik lege-debekuei.

Egunean ditudala indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditudala.

ADOSTASUNAK**Nortasun-datuak**

- Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatze, baieztatze edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak

- Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatze, baieztatze edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

Hirugarrenaren alta

- Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatze, baieztatze edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Eusko Jaurlaritzaren **Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Emakunderen Pertsonen Erregistroa** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Emakundeko Erakunde Antonomiadunera** jotzea (Manuel Iradier kalea, 36, 01005, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzek badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzek badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta bere datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

Pertsona juridikoak, beti jokatzek dute ordezkari gisa, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta bere datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

2 JAKINARAZPENEA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jasotzek nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak www.euskadi.net/nirekudeaketak -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzek ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, admisnitratioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzek dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

2011ko abenduaren 29a, osteguna

ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Abizenak

Izena NAN -

Erakundea

Erakundearen IFK

Kargua

Erakundearen helbidea

Herria Código postal

Mugikorra Telefonoa Faxa

BESTE FINANTZIAZIO ITURRIAK

Beste finantziazio iturririk izan al dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzuk?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

Beste laguntzarik eskatu al dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

Behean izenpetzen duen arduradunak edo koordinatzaileak hitz ematen du badakiela deialdi honen arauak zeintzuk diren, eta baimena ematen du, eskaera finantzatzuz gero, eskaeran jasoka dagoen edukia daut-baseetan erabiltzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren ondorioetarako.

_____ (e)n _____ (e)an

Sinadura:

II ERANSKINA - MEMORIA

JUSTIFIKAZIOA

Ikerlanaren argitalpen-proiektuaren justifikazioa: garrantzia eta interesa ematen dizkioten alderkiak eta berri-kuntzak nabarmendu behar dira bereziki:

HELBURUAK

Ikerlanaren argitalpen-proiektuaren helburu zehatzen azalpena eta lana banatzeko modua:

HEDAPENA

Interesa, hedapen-maila eta argitalpen-proiektuaren banaketa:

_____ (e)n _____ (e)an

Sinadura:

III ERANSKINA - AURREKONTUA

Atal bakoitzerako, argi eta garbi jaso behar dira ikerlanaren argitalpen-proiektua egiteko dauden baliabide propioak edo bestelako laguntza batzuk:

Aurrekontua zorrotz egokitu behar da lanaren argitalpen-proiektura.

TESTUAK ZURRENDU ETA MAKETATZEKO GASTUAK ETA FOTOMEKANIKA ETA INPRIMAKETA GASTUAK

Baliabide-premiaren justifikazioa	Eskatzen den laguntza	Beste ekarpen batzuk	
		Baliabide propioak	Beste laguntza batzuk
Guztira			

INPRENTA ETA BANAKETA GASTUAK

Baliabide-premiaren justifikazioa	Eskatzen den laguntza	Beste ekarpen batzuk	
		Baliabide propioak	Beste laguntza batzuk
Guztira			

BESTE GASTU BATZUK

Baliabide-premiaren justifikazioa	Eskatzen den laguntza	Beste ekarpen batzuk	
		Baliabide propioak	Beste laguntza batzuk
Guztira			

2011ko abenduaren 29a, osteguna

BESTE FINANTZIAZIO BATZUK

	Erakundea	Kontzeptua	Zenbatekoa
Eskatutako beste diru-laguntza batzuk			
Jasotako beste diru-laguntza batzuk			
		Guztira	

AURREKONTUAREN LABURPENA

Kontzeptua	Eskatzen den laguntza	Beste ekarpen batzuk	
		Baliabide propioak	Beste laguntza batzuk
1.- Testuak zuzendu eta maketatzeko gastuak			
2.- Inprenta eta banaketa gastuak			
3.- Beste gastu batzuk			
4.- Beste finantziario batzuk			
Guztira			

_____ (e)n _____ (e)an

Sinadura:

IV ERANSKINA - JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEEN LAGAPENA

1. Egilea

ESKABIDEAREN IKERKETA-XEDEAREN DATUAK

Egilearen izen-abizenak: _____

Eskabidearen ikerketa-xedearen izenburua:

DEIALDIAREN XEHETASUNA

Ebazpenaren zenbakia: _____

Ebazpenaren data: _____

Deialdiaren izena:

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikerketa-lanaren argitalpen-proiektuei diru-laguntzak

HURRENGO DOKUMENTUAREN BIDEZ

Doainik, ez eskusiboki eta denbora eta geografia-mugarik gabe, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari lagatzen diot aipatu deialdiaren babesean diruz lagundutako ikerlanaren erabilera eta ustiapen ekonomikoa; baliabide propioen bidez edo beste erakunde batzuekin hartutako akordioaren bidez, ikerlana -dela osorik dela zati bat-, erreproduzitzeko, banatzeko, eraldatzeko, jendaurrean jartzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea, bereziki; horretarako, lagapen honen unean dauden edo ezagutzen diren bitarteko, hizkuntza, euskarri edo prozedurak erabili ahal izango dira, eta beti aipatu beharko da lanen egiletzea.

_____ (e)n _____ (e)an

Izpta:

V ERANSKINA - ARGITARATZEKO DAGOEN MATERIAL GUZTIA

Argitaratuko den materialaren testu osoa (lehenengo edizio bati buruzko argitalpenak izango dira).

ARGITARATZEKO DAGOEN MATERIAL

_____ (e)n _____ (e)an

Sinadura:

VI ERANSKINA - IGORTZEN DIREN DOKUMENTUAK

Igortzen diren dokumentuak	
<input type="checkbox"/>	Eskaera
<input type="checkbox"/>	I Eranskina - Argitalpen-proiektuaren datuak
<input type="checkbox"/>	II Eranskina - Memoria
<input type="checkbox"/>	III Eranskina - Aurrekontua
<input type="checkbox"/>	IV Eranskina - Jabetza intelektualaren eskubideen lagapena
<input type="checkbox"/>	V Eranskina - Argitaratzeko dagoen material guztia

Administrazioari datuak izateko oniritzia eman ez bazaio, soilik:

Entregatzeko dokumentuak	
<input type="checkbox"/>	Pertsona fisikoaren NANaren fotokopia edo pertsona juridiko eskatzailearen IFKa
<input type="checkbox"/>	Zerga-beharren eta pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen Gizarte Segurantzaren ziurtagiria

_____ (e)n _____ (e)an

(Eskatzailearen edo taldearen pertsonen sinadura)